

Itzulpena gizarte-jarduera gisa erromatarren garaian Itzulpenaren teoriako bi testu klasiko berrirakurriz¹

MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN (UPV/EHU)²

«Hizkuntza-aniztasuna: ikuspegi sozial eta historikoak» izeneko ikastarorako egindako ariketa bat dakart *Senex* aldizkariko zenbaki honetara, itzulpengintzaren historiari eta teoriari begiratzeko modu berriak irakurleen interesekoak izan daitezkeelakoan. Aipatutako ikastaroaren funtsa erromatarren garaitik Erdi Arora bitarteko Europako hizkuntza-aniztasunaren eboluzioaren errepaso historikoa egitea zenez gero, hainbatean ekarri ditugu hizpidera ikasgai horretan bai iraganeko testu eleaniztunak, bai gizarte jakinek hizkuntza bat edo beste erabiltzeko hautua baldintzatu duten irizpide sozial, politiko zein kulturalen inguruko gogoe-tak. Ildo horretan, itzulpena nahitaezko

aipagai izan da, dela arestian aipatutako testu eleaniztunak itzulpenak zirelako, dela hizkuntza-hautuari itzulpenaren hautua ere bazegokiolako.

Badirudi, beraz, hizkuntza-aniztasunak nahitaez eskatzen duela itzulpena aipatzea. Are gehiago, ausartu naiteke esatera gizarte eleaniztunak itzultzen duten gizarteak direla, itzulpengintza hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko tresna baita. Gainera, itzulpena nola baliatzen den, hizkuntza-aniztasuna ikusgai edo ikusezin bihur daiteke. Edonola ere, badirudi ez dela nahi bezain sarri jarri izan fokua itzulpenaren edo itzultzailearen eragin eta egitekoetan. Hori diote Vegak eta beste ikertzaile batzuek, eta nolabait arra-

-
1. Bihoazkie nire eskerrik beroenak Iñigo Roqueri, egindako oharrengatik, eta Gidor Bilbaori, latinezko testuen euskarazko itzulpenagatik.
 2. Lan hau MHLI ikertaldearen (IT 1047-16) proiektuen barruan egina da: US 17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO).

zoibideak topatzeko saiakera ere egiten dute (1994: 18):

Quizá sea buen síntoma que no pensemos en la traducción. No vemos la traducción, porque nos hemos acostumbrado a la mediación que supone, porque se nos ha hecho ambiente, medio físico, porque, a pesar de los pesares, sigue funcionando, cumpliendo sus tareas, tareas que responden a uno de los más bellos condicionamientos de la naturaleza social del hombre: el polimorfismo lingüístico.

Itzulpena, hortaz, hain da prozedura naturala ezen ia ikusezina den. Horiek horrela, ariketa honen bidez historiaren aro jakin bateko prozedura soziala bistaratu nahi nuke. Nire iritziz, itzulpenaren teoria eta itzulpenaren historia itzulpenaren soziologiarekin konbinatuta lortutako diziplinartekotasunak argi egin dezake historia globalaren zenbait alderdiz, zeren, azken finean, itzultzaileak, beste askoren artean, hainbat aro eta espaziotan jakintzaren garraiatzaileak izan dira, edo hizkuntzak aberastu zein alfabetoak zehaztu dituzte, edo balio kulturalak inportatu eta esportatu... (Vega, 1996-1997: 85). Hain zuzen ere, itzulpenaren teoriako bi testu klasikotatik abiatuta, erromatarren garaiko itzulpenaren eta itzultzaileen rola eta funtzioa agerrarazi nahi nituzke ariketa honetan, zehazki itzulpengintzaren haurtzarotzat jotzen den garaiko testuak eta ikerketak ekarrita. Izan ere, honela deskribatu izan dute itzulpenaren historiagileek Erromatar Garaiko itzulpena: «Las primeras traducciones del griego al latín (Cicerón, Livio, Terencio, etc.) fueron los primeros pasos, los primeros balbucesos,

dio zehazki Vegak (1996-1997: 71). Beraz, ariketa honen luze-laburrak eta dimentsioak uzten duen heinean, itzulpenean fokua jarzteak historia orokorrari edo kultura- zein literatura-historiari egin diezaiokeen ekarpena bistaratzea da asmo nagusia. Izan ere, Vegak dioen moduan (1996-1997: 71):

[...] ni las historias literarias ni las de la cultura cuentan todavía con la labor traductora como factor determinante de progreso espiritual de los pueblos. A la traducción, es decir, al entendimiento de los pueblos y de las culturas se le sigue negando su memoria.

Pymek definitu bezala ulertzen dut hemen itzulpengintzaren historia, ikasketak humanistikoaren parte gisa. Halaber, eta Pymek dioenari jarraikiz, itzultzaileak gizarte-eragileak dira: «I would like to see translation history as a unified area for humanistic study of human translators as their social actions, both within and beyond their material translations» (1998: 4). Bat nator, azken ideia horrekin ez eze, itzulpenaren historiak *Method in Translation History* lanaren sarreran dioen beste honekin ere (Pym, 1998: viii):

Translation history can be a source of ideas and data for the political or sociological study of international relations; it might have more than a few words to say in the development of language policies; its models should be able to address the increasing internationalization of audiovisual culture, it has a great deal to contribute to the general history of literature and ideas, especially given the way nationalist paradigms have

traditionally excluded translators from such fields of inquiry.

Liburu berean (1998), lau oinarrizko printzipio proposatzen ditu Pymek itzulpengintzaren historiako ikertzailea gidatzeko. Lehenbiziko printzipioaren arabera (*attention to causation*), itzulpenaren historiak azaldu behar du zergatik ekoitzi diren itzulpenak garai eta leku jakin batean; printzipio natural bat eman dezake horrek, baina ez da hain begi-bistakoa, antza, metodo enpiriko estuak darabiltzagunean: «This seems straightforward until you realize that narrowly empirical methods – the kind we find in many systemic descriptive approaches – are fundamentally unable to model social causation» (1998: ix). Bigarren printzipioak (*focus on the human translation*) giza faktorea kontuan hartzearen garrantzia nabarmentzen du; izan ere, Pymen iritziz pertsonak dira gizarte-arazoen erantzule. Hortaz, itzultzaileak behar du giltzarria izan itzulpenaren historian. Bestela esanik, itzultzaileari berari eta haren testuinguruari (bezeroa, nagusia, irakurlea...) begiratu ezean, ezinezkoa da itzulpen jakin bat ekoitzi izana behar bezala ulertzea. Pymen hitzetan: «To understand why translation happened, we have to look at the people involved» (1998: ix). Hirugarren printzipioaren arabera (*hypothesis projecting intercultural belonging*), itzultzaileak izan behar du itzulpengintzaren historiaren erdigune, baina itzultzailea gizarte jakin bateko pieza dela ulerturik eta gizarte horretako ezaugarriak ondo kontuan izanik. Hala, itzultzaileen lanak gizarte-testuinguru jakinetan izandako funtzioari jarri behar zaio arreta (1998: x). Laugarren

printzipioak (*a priority of the present*) gogorarazten digunez, historia gaur egunetik egiten da: «The past is an object that must be made to respond to our questions, indicating categories and potential solutions that we have not previously thought of. Yet, our initial point of departure is always here and now» (1998: x).

Hemen, Zizeronen testuari (K.a. 46) eta Pliniorenari (K.a. 50) begiratzean, lau printzipio horiek gogoan izateko ahalegina egin dut. Hala, gogoan izan dut itzultzaileek ez zituztela testuok idatzi itzulpengintzaren historiagileentzat, eta agian ez dugula guk nahi genukeena topatuko haien hitzetan. Ondo gogoan izan dut, halaber, garrantzia duela itzultzaileek eurek euren itzulpen-proiektuari buruz zuten ideari, usteei edo iritziei erreparatzeak, betiere itzultzaileen proiektua dagokion testuinguru sozialean kokatuz.

Lehen esan bezala, itzulpenaren teoria, itzulpenaren historia eta itzulpenaren soziologia uztartzen dira ariketa honetan, eta gogoan hartzekoa da diziplina horien arteko muga lausoa dela. Baina, inondik ere, elkarren aberasgarri dira diziplina horietako narrazioak, eta, Pymek dioenez (1998), teoriaren eta historiaren arteko uztardurak dakar itzulpengintzaren historiografiarik bikainena (Pym, 1998: 10):

Note that most of the texts just referred to deal with the history of translation theory (...). Better historiography requires awareness of what translators have actually done. And the best historiography must surely come from relating the two, investigating the complex relationships between past theories and past practices.

Esan bezala, hemen proposatzen dudan ariketan, erromatarren garaiko testu bi dakartzat, itzulpenaren teoriako antologia aski ezagun batetik hartuak,³ baina asmoa ez da testuetan itzulpen-teoriaz esandakoa aztertzea, ezpada testuetan esaten direnek itzulpengintzaren historiarako eman ditzaketen arrastoei erreparatzea. Ondoren, arrasto horiek itzulpenari buruzko beste narrazio batzuekin erkatzeko saioa egingo dut, bai eta gogoeta labur bat erantsi ere erromatarren garaian itzulpenak izandako funtzio soziologikoez.

Zertaz ari dira, ordea, itzulpengintzari buruzko narrazioak? Woodsworthek dioenez, itzulpengintzaren historiaren argitan, narrazio historikoak itzulpen-praktikari buruz ari daitezke, edo itzulpen-teoriaz (Nola itzuli behar da? Zer-nolakoa da itzulpen egokia?), edo biez. Bada, praktikaren historiak aztertzen du, besteren artean, nork zer itzuli zuen, eta zer baldintzatan; itzulpenaren teoriaren edo diskurtsoaren historiak, ordea, itzultzaileek euren jardueraz esandakoak aztertzea du xede nagusitzat besteak beste, bai eta itzulpenak ebaluatzeko baliatu izan diren irizpideen narrazio historikoa egitea ere (Woodsworth, 1998: 101). Izan ere, garaian-garaian eta hizkuntza-komunitatearen arabera, modu batera edo bestera balioetsi izan da itzulpena, ezen itzulpenak egon izan direla eta helburu espezifikoak bete dituztela zalantzarik gabekoa da:

Las traducciones se mueven entonces entre dos polos: son una presencia constante,

universal en todas las culturas, pero reciben un sesgo particular en cada época, en cada sociedad. Existe una internacional de las ideas sobre la traducción, como recordaba Sabio, pero junto a esta dimensión, hay una respuesta concreta, en cada tiempo y lugar. Existe el acto universal de trasladar un texto de una lengua a otra, pero también existen maneras de trasladar los textos, y circunstancias diferentes en las que se produce la traducción.

(Rubio Tobar, 2013: 298)

Hala, garai bakoitzeko eta gizarte bakoitzeko itzulpen-eraginak ikertzeko, hainbat iturri har daitezke kontuan, besteak beste, itzultzaileen gutuneria, itzulpenen kritikak, hizkuntzak irakasteko metodoak, itzulpenari buruzko tratatuak... D'Hulstek azaldu bezala:

D'autres sources restent à ce jour négligées : les correspondances de traducteurs et de critiques, les méthodes d'enseignement des langues, les manuels et traités de traduction, les versions manuscrites ou les rééditions avec variantes de textes déjà publiés. Elles peuvent éclairer la conceptualisation historique, la lisibilité, la diffusion des textes, les contraintes institutionnelles, voire la censure, ainsi que la part individuelle ou "biographique" d'une pensée en mouvement.

(D'Hulst, 1995: 17)

Ariketa honen xedeetarako, itzulpen-teoriako testuak iturri aberatsak izan daitezke, eta *Textos clásicos de la teoría de la tra-*

3. Gaztelaniazko testuz osatuta dago aipagai dugun antologia (Vega, 1994), baina ariketa honetan Gidor Bilbaoren euskarazko itzulpenak txertatu ditugu.

ducción (Cátedra, ed. Miguel Angel Vega) lanean jasotako bi testu-txatal hautatu ditut. Liburu ezagun horren sarreran Vegak azpimarratzen du testu teorikoak erreskaltu egin behar direla iraganetik (Vega, 1994: 20); bada, halako erreskate bikoitz batean (Vegaren antologia bera ere testu klasikoa bihurtu baita), ikus dezagun zer-nolako informazioa eskaini zuten eta zer-nolako arrastoak utzi zituzten itzultzaileek euren jardunari buruz Erromatar Garaian. Hona hemen Vegaren antologian ageri den Zizeronen testua, Gidor Bilbaoren itzulpenean (azpimarrak nireak dira):

Zizeron, *De optimo genere oratorum*
(‘Hizlari mota hobereña’), 13-15

Baina horretan, hain zuzen hitz egiteko molde hori [atikarren era] zein den zehaztean, huts egin ohi denez, pentsatu dut eginkizun honi ekin behar diodala, ikastuentzat baliagarri izango delakoan, niretzat beharrezkoa ez den arren. Hortaz, Eskines eta Demostenes atikar hizlari trebeenen hitzaldi ezagunak itzuli ditut, bata bestearen kontrakoak. **Eta ez ditut itzuli interprete moduan, hizlari moduan baino, esaldi berberekin eta irudi gisako forma berberekin, eta gure ohituretarako hitz egokiekin, zeinak ez baitituz hitzez hitz itzuli behar izan; aitzitik, hitzen moldea eta indar osoa gorde ditut. Izan ere, pentsatu dut ez dela komeni nik irakurleari hitz horiek zenbaturik ematea, pisaturik-edo baino. Nire eginkizun honen helburua hau izango da: gure jendeak jakitea zer eska dakioken bere burua atikar gisa aurkezten duenari, eta zer hizketa-moldetara deitu behar dituzten halakoak.**

(Itz.: Gidor Bilbao)

Oso testu ezaguna da itzulpenaren teoriaren diziplinan, eta esan izan da itzulpenari buruzko testuen artean diziplinako testu fundatzaileetako bat dela: «Es opinión muy extendida que los primeros testimonios sobre la traducción provienen de Cicerón, [...] Y también es opinión igualmente extendida que Cicerón rechaza la traducción palabra por palabra o literal» (Pérez González, 1996: 109).

Itzulpen-teoriaren helburu nagusietako bat izan da gogoeta egitea historiaren garai bakoitzean balioetsi izan diren itzulpen-estrategiei buruz eta, zentzu horretan, azpimarratutako pasartea, esaterako, beste garai batzuetako pasarteekin erkatuta, ikertzaileek zera ondorioztatu dute, besteak beste:

Pues bien, yo no observo, desde Cicerón hasta el s. XVIII, cambios esenciales que afecten intrínsecamente a la teoría de la traducción, tal como ésta se entiende hoy. Evidentemente, en determinados momentos se advierten actitudes nuevas, pero que de ningún modo implican una revolución conceptual y metodológica en el saber traductológico. En efecto, la distinción ciceroniana entre la actividad del *interpres* o traductor literal, carente o no necesitado de elocuencia, y la del *orador*, que es un recreador o refundidor, persistió durante siglos y siglos. Y que Cicerón procediese como *orator* significa que él consideraba superior dicha actividad, pero no que se opusiese a la del *interpres*.

(Pérez González, 1996: 123)

Beraz, badirudi ez dela itzulpen egokiari buruzko eztabaida askorik aldatu XVIII. mendera bitartean, eta ordura artekoak etiketa honen pean gorde daitezkeela: «la

“etapa arcaica de la teoría de la traducción” (Pérez Gonzalez, 1996: 123). Egoera aldatu da, ordea: «La situación empezará a cambiar de manera sustancial sólo a partir de los estudios de Tytler, Humboldt y Schleiermacher» (*idem*).

Nolanahi ere den, Zizeronek testuari ikuspegi soziologikotik begiratzuz gero, bes-telako informazioa eraz dezakegu. Esate baterako, Zizeronek dioenean «pentsatu dut eginkizun honi ekin behar diodala, ikastuentzat baliagarri izango delakoan», datuak ematen ditu bere itzulpenaren hartzailei buruz. Halaber, Zizeronek aipatzen duenean «Eskines eta Demostenes atikar hizlari trebeenen hitzaldi ezagunak itzuli ditut, bata bestearen kontrakoak», itzulitako gaien nolakotasunari buruzko informazioa ematen ari da, kasu horretan helburua ez zelarik iritzi jakin bat barreiatzea (aurkako bi diskurtso itzultzen direnez gero), ezpada ondo egituratutzat eta elokuentziaren adibidetzat jotako diskurtso bat agerraraztea. Ideia bera nabarmendu daiteke Zizeroren hitzotatik: «Nire eginkizun honen helburua hau izango da: gure jendeak jakitea zer eska dakioken bere burua atikar gisa aurkezten duenari, eta zer hizketa-moldetara deitu behar dituzten halakoak».

Bada, testua Pymen *causation* eta *inter-cultural belonging* printzipioen arabera aztertuz gero, esan dezakegu Zizeronentzat itzulpenak interes kulturala zuela, testuan aipatutako diskurtsoak itzultzeko arrazoia erretorikarekin loturik dagoela, eta ez hain beste hizkuntza batetik bestera mezuen zubi-lana egitearekin. Bestela esanik, itzultzaileak ahozko ereduaren garrantzailerik ziren, garaiko jende eskolatuaren zerbitzuan.

Hain zuzen ere, imitazioa eta egokitza-pena izan ziren erromatarrek grekoen kulturaz jabetzeko baliatutako prozedura. Pérez Gonzalezek dioenez, «dejando al margen el poema épico de Livio Andronico, las primeras obras literarias latinas surgieron de la adaptación de comedias griegas, generalmente mediante el empleo del recurso de la *contamination*» (1996:109), eta itzulpena zen, hortaz, «Grezieraz bezala egiteko» modua. Moattiren hitzetan esanez, «By translation, the bilingual Romans experienced the creativity of their own language» eta «For Romans, translation was sometimes literal, but more often it consisted of adaptation, imitation, periphrasis, summary» (2006: 113).

Idea hori ageri da, halaber, ariketa honetan aztertu nahi dugun bigarren testuan:

Plinio Gaztea, *Epistulae*
(‘Gutunak’), VII, 9

Oso baliagarria da —eta askok aholkatzen dute hala egitea— grekotik latinera edo latinetik grekora itzultzea, halako jardueraren bidez lortzen baitira hitzen zehaztasuna eta aberastasuna, figura estilistikoaren oparotasuna eta azalpenen indarra; eta gainera, hoberenen imitazioaren bidez, asmatze-lanerako gaitasuna ere garatzen da. Aldi berean, irakurlea ohartu gabe igaro daitezkeen xehetasunek ezin diote ihes egin itzultzaileari. Horrela adimen-zolitasuna eta gogoeta egiteko gaitasuna lantzen dira.

(Itz.: Gidor Bilbao)

Lehenago aipatutakoaz gainera, nabarmentzekoa begitantzen zait Pliniok itzulpenaren norabide bikoitzaz dioena eta itzultzaileak bere lanari ematen dion balioa.

Grekotik latinera eta latinetik grekora itzul-tzea baliagarritzat jotzeak indartu egiten du idea hau: latina ez zen Inperioak baliatu beharreko hizkuntza bakartzat jotzen Erromatar Garaian. Honela azaltzen du ideia hori Moattik:

Thus, the Romans, who administered their empire *in utraque lingua*, thought it was culturally possible to speak in one language and write in another, to transmit culture in two languages, and even to translate their own texts —important evidence that there is no natural link between language and identity as many believe in our modern times.

(Moatti, 2006: 111-12)

Plinioren hitz hauen argitan, «Horrela adimen-zolitasuna eta gogoeta egiteko gaitasuna lantzen dira», esan dezakegu itzulpena maila goreneko jarduera intelektualtzat jotzen zuela egileak, eta itzultzaileen lana modu positiboan balioesten zela, Hervásen esanarekin bat: «Se podría afirmar que en occidente la Historia de la Traducción comienza con Roma, al menos en lo que respecta al papel que las traducciones jugaban y la posición de prestigio que se les otorgaba» (Hervás, 1998: 255).

Hervásek zehaztasun gehiago eskaintzen ditu erromatarrek itzulpena hautemateko zerabilten moduez eta garai hartako itzultzaileen funtzioaz:

[...] función que un poeta debía cumplir para con su entorno, que a grandes rasgos era adquirir sabiduría para más tarde difundirla a través del arte de componer poesía. Los romanos se sentían continuadores de los modelos literarios heredados de Grecia,

cuya legendaria cultura gozaba de la consideración de ser el medio de transmisión cultural por excelencia, de manera que un romano culto podía leer sin grandes dificultades tanto en latín como en griego. Por tanto, un texto traducido era leído a través del texto original, y así los traductores romanos no se sentían constreñidos por la limitación de trasladar de una lengua a otra o bien un contenido textual o bien una forma textual para los lectores monolingües. Por el contrario, se sentían con la relativa libertad de ejercitar su capacidad poética en recreación del modelo que estaban intentando imitar y emular en un proceso de estilística comparada. En conexión con esta concepción esa la misión del traductor como introductor de neologismos griegos con el fin de enriquecer la lengua latina (...)

(Hervás Jávega, 1998: 256)

Horrenbestez, esan daiteke itzultzaileak onesten zirela grekoen poetikaren eta hizkuntzaren ispilu izateagatik.

«Translation, migration and communication in the Roman Empire: three aspects of movement in History» (2006) izeneko artikuluan, Moattik itzulpena (testuena, praktikena eta ideiena) mugimendu gisa dakusa, eta azaltzen du berebiziko elementua zela erromatarren kultura-identitateari eta negoziatio politikoari dagokienez, migrazioekin (ofizialenak, merkatarienak, ikasleenak, etab.) eta komunikazioarekin batera (idatzizko dokumentuen mugimenduari dagokionez). Aipagai den artikulua helburu nagusietako bat da «to show how in Roman society translation changed the conception of culture, migration the definition of identity and social control, and communication

the nature of politics» (2006: 110). Bada, ildo horretan, Moattiren ustez itzulpena kultura-praktika bat baino zerbait gehiago da, hain zuzen ere «a way of governing, one aspect of political communication between center and periphery in a bilingual empire» (2006: 110). Beraz, itzulpena gizarte-praktika bat da, zerikusi handia duena gizarte jakin batek migrazioak eta harreman politikoak ulertzeko daukan moduarekin. Argi azaltzen du Moattik pasarte honetan:

But translation was also linked to migration in other ways. The Letter of Aristeas, a document that was probably written at the beginning of the first century, relates that when King Ptolemy II wanted the Bible to be translated into Greek, he asked the high priest of Jerusalem to send him translators. The story, whether true or not, shows that translation is first, and quite literally, a movement from one culture to another one: in this instance, from Jerusalem to Alexandria. We might say then that translation is a kind of travel; or at least that translations are always developed in periods and countries where physical contacts between different people are most important. Translation is a feature of cosmopolitanism and is linked to mobility and communication.

(Moatti, 2006: 110)

Horrez gainera, eta betiere Moattik dioenari jarraikiz: «*Translatio studii* was above all linked to *translatio imperii*. What was at stake was not only to increase Latin literature, but also to become culturally independent and to make Rome the intellectual center of the world» (2006: 115). Hala, esan dezakegu itzulpenak berebiziko funtzio politiko eta sinbolikoa zuela:

The Roman use of translation to construct their cultural patrimony also allowed them to consider themselves as heirs. They even believed that their role was to archive Greek successes and achieve what the Greeks failed to do. Rome became in a sense the memory of Greece, and Greek history one element of the Roman past.

(Moatti, 2006: 116)

Itzulpenaren bidez balio unibertsala esleitzen zitzaion kulturari, ideia nagusia izanik kultura ez zela soilik grekoen jabetza (Moatti, 2006: 116). Ildo horretan, itzulpena ondasunak zabaltzeko eta berdintasuna erdiesteko baliabide bat zen.

Moattiren ustez, itzulpena erromatarren identitatearen osagai behinena zen, eta itzulpenaren ideia liburuei, kontzeptuei zein aipamenei lot dakieke (2006: 114). Oso jakitun ziren horretaz, gainera:

I have tried to show elsewhere that this consciousness appeared at the end of the republic, after the conquest, and in a context of rationalization that involved many aspects of social and political life, especially the construction of cultural identity. Being eager to inscribe themselves in the history of other peoples, Romans created comparative chronologies, compared men and gods of different societies (Varro, for example, explained that Jupiter and Yaveh were the same), or made lists of things, words, and institutions that they had borrowed from others. Translation was for them a way of thinking and of discovering the specificity of their own language.

(Moatti, 2006: 112)

Laburbilduz, esan dezakegu erromatarrek itzulpena ulertzen zutela euren identitatearen eraikuntzaren isla gisa, hots, «as something under constant construction, in constant emulation with others, as well as their particular ideas of authority and of accuracy» (Moatti, 2006: 115).

Bada, arestian aipatu ditudan datu guztiak itzulpenaren historiako kritika historiakoaren parte izan daitezke. Pymek *Method in Translation History* (1998) lanean azaltzen duenez, itzulpenaren historian hiru azpi-alor bereiz daitezke: batetik, itzulpenaren arkeologia, zeinak biltzen baititu galdera hauei erantzuten dieten diskurtsoak: nork, zer, nola, noiz, non, norentzat eta zer helbururekin itzuli izan da? Alor horretan biltzekoak dira, halaber, itzultzaileen ikerketa biografikoak eta itzulpen-katalogoak (Pym, 1998: 5). Beste alde batetik, kritika historikoa ere badugu; itzulpenak garapena nola laguntzen edo oztopatzen duen aipagai duten diskurtsoen bilketa, alegia. Azke-

nik, azalpena dugu, eta itzulpenaren historiaren azpi-alor horretan aztertzen da, hain zuzen ere, gertakariaren zergatia eta nolako lotura duen horrek historiaren garapenarekin (*idem*). Autorearekin bat, itzulpenaren historiak hiru alorretatik behar du, eta alor guztiak elkarreragileak dira (Pym, 1996: 6).

Bukatzeko, aipatu nahi nuke ariketa honetan nabarmendutako informazioa, itzulpenari buruzko datu arkeologikoekin eta azalpen-datuekin batera, itzulpenaren historiaren argigarri izan daitekeela eta, Itzulpen Ikasketetako diziplinartekotasunari men egirik, itzulpenaren historia pieza osagarri bat izan daitekeela, beste diziplina batzuetako piezekin batera, humanitatearen historia globala idazteko eginkizun erraldoian aurrera egiteko. Halaber, hemen eginiko ariketa euskal itzulpenari buruzko testuetara ere zabal daiteke, euskal itzulpengintzaren, euskal literaturaren, euskal kulturaren eta euskal historia globalaren argitan.

BIBLIOGRAFIA

- D'HULST, L. (1995): «Pour une historiographie des theories de la traduction: questions de méthode», *TTR: traduction, terminologie, rédaction*, 8, 1, 13-33.
- HERVÁS, I. (1998). «La reflexión traductológica: una revisión diacrónica (I)», *Philologia Hispalensis*, 12, 255-267. Linean: http://institucional.us.es/revistas/philologia/12_1/art_16.pdf
- MOATTI, C. (2006). «Translation, migration and communication in the Roman Empire: three aspects of movement in History», *Classical Antiquity*, 25 (1), 109-140. Linean: <https://halshs.archives-ouvertes.fr/halshs-00658682/document>
- PÉREZ GONZÁLEZ, Maurilio (1996). «La reflexión traductora desde la antigüedad romana. Una propuesta de interpretación», *Minerva: Revista de filología clásica*, 10, 107-124.
- PYM, A. (1998): *Method in Translation History*, Manchester: St Jerome Publishing.
- RUBIO TOBAR, J. (2013): *Literatura, Historia y Traducción*, Madrid: Ediciones de La Discreta.
- VEGA, M.A., (1994). *Textos clásicos de teoría de la traducción*, Cátedra.
- (1996-1997) «Apuntes socioculturales de Historia de la Traducción», *Hieronymus Complutensis* 4-5, 71-85. Linean: https://cvc.cervantes.es/lengua/hieronymus/pdf/04_05/04_05_071.pdf
- WOODSWORTH, J. (1998): «History of translation», *Routledge Encyclopedia of Translation Studies* (Baker, M. ed.), London & New York: Routledge.

Resumen

El multilingüismo, tanto el actual como el pasado, está estrechamente ligado a la traducción, y puede decirse que las sociedades multilingües son sociedades traductoras, ya que la traducción es una herramienta de gestión de lenguas. En el presente trabajo —realizado como ejercicio para la asignatura de master «El multilingüismo: perspectivas sociales e históricas»— se retoman un texto de Cicerón (46 a. C.) y otro de Plinio (50 a. C), para visibilizar la función y el rol social de la traducción en la época romana.

Résumé

Le multilinguisme, qu'il soit actuel ou passé, est étroitement lié à la traduction. Dans la mesure où la traduction est un outil de gestion des langues, on peut dire que les sociétés multilingues sont des sociétés qui traduisent. Le présent travail est un exercice présenté pour un cours de master intitulé « Multilinguisme : perspectives sociales et historiques », et où on fait une relecture d'un texte de Cicéron (46 av. J.-C.) et d'un texte de Pline (50 av. J.-C.) pour rendre visible le rôle et la fonction sociale de la traduction à l'époque romaine.

Abstract

Past and present multilingualism is closely linked to translation, and it can be said that multilingual societies are translating societies to the extent that translation is a tool for language management. The present text is an exercise proposed in a Master's-level course entitled "Multilingualism: social and historical perspectives" that aims to re-analyze a text by Cicero (46 BC) and another by Pliny (50 BC), in order to highlight the role and social function of translation in Roman times.